Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miren Jone Rekondo Aizpurua

Usurbil, Gipuzkoa (1926)



Aurkibidea

Biografia



Usurbilgo Arruenea Berrin jaio zen, 6 senideren artean hirugarrena. Aita udaletxeko idazkaria izan zuten, eta horrek arazo bat baino gehiago ekarri zizkien gerra garaian. 10 urte zituela Zubietara joan ziren bizitzera amaren baserrira; eta gerra bukatutakoan ere han gelditu ziren 1956 arte, batetik, Usurbilgo etxea erre zelako, eta bestetik, aita desterratu egin zutelako. Sukaldari trebea, gaur egun bere jaiotetxean bizi da.

Zintak

USU-027

- **Proiektua**: Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Data**: 2010-08-12
- **Iraupena**: 98 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin

USU-028

- **Proiektua**: Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2010-08-12
- **Iraupena**: 55 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Hilabeteen izen zaharrak

- **Erref**: USU-027/002
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:00:51. **Bukatu**: 00:01:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Lehen hilabeteen izenak nola esaten ziren aipatzen du.

Transkripzioa
-Hillabetiak leheno nola zian? Gehienak bai, aber: Ilbeltza, otsailla, epailla, jorrailla, garagarrilla, uztailla, irailla, urrilla, azilla eta lotazilla.
Joxe: -Jode! Honek badakizki.
-Bai, hoik zian leheno, hoik guk ikasi giñun...
-Abuztua abuztua zan edo?
-Abuztua zan, uztailla... abuztua, abuztua.
-Ta maiatza maiatza?
-Bai. Ta enkanbio gauza asko aldatu ein dia.

2. Arruenea Berriren egitura lehen

- **Erref**: USU-027/005
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:03:32. **Bukatu**: 00:05:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Arruenea Berrin jaiotakoa da Miren Jone eta gogoan du nolakoa zen etxea erre baino lehenago. Lehen hiru kotxe ziren herrian eta haietako bat beren aitarena zen.

3. Arruenea Berri: erre aurreko oroitzapenak

- **Erref**: USU-027/007
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:06:02. **Bukatu**: 00:07:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Arruenea Berri barrutik nolakoa zen azaltzen du.

4. Anaiak batxilergoa eta kimika ikasi

- **Erref**: USU-027/010
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:09:11. **Bukatu**: 00:11:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Anaiak Lekarozen ikasi zuen 7 urtean. Han batxilergoa ikasi zuen eta gerora kimikaria izan zen. Kimika Zaragozan eta Salamancan ikasi zuen. Jarrera ona izateagatik, anaiak sariak lortzen zituen.

5. Usurbilgo mojetan ikasia

- **Erref**: USU-027/011
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:11:34. **Bukatu**: 00:12:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Usurbilgo mojetan ikasi zuen Miren Jonek. Hango mojei buruz hitz egiten du. Eskola nazionalera mutilak joaten ziren.

6. Mojekin ikasitakoa: eskola orokorra eta eskulanak

- **Erref**: USU-027/012
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:12:57. **Bukatu**: 00:15:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Eskolako mojak frantsesak ziren eta frantsesa irakasten zuten klaseak bukatu ostean. Eskola orokorra eta eskulanak ikasten zituzten. Eskulanetako materiala etxetik eramaten zuten, Donostian erosita.

7. Umetako jolasak

- **Erref**: USU-027/014
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:15:35. **Bukatu**: 00:16:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Kalean zer jolasetan eta non aritzen ziren aipatzen du. Frontoia lehen ez zegoen estalita. Gazteak pilotan ibiltzen ziren.

8. Gerrako kontu tristeak

- **Erref**: USU-027/016
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:17:36. **Bukatu**: 00:19:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:
Gerra hasi zenean, gauza tristeak gertatu ziren herrian. Jendeak ihes egin zuen eta liskarrak egon ziren. Bonbardaketaren beldur zirenean, elizan babesten ziren umeak. Soldaduek plazan desfilea egin zutenekoa gogoan du.

9. Aitari kotxea kendu ziotenekoa

- **Erref**: USU-027/018
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:20:42. **Bukatu**: 00:21:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:
Aitak kotxea zeukan; behin preso eraman eta kotxea kendu zioten.

Transkripzioa
-Esan dezu, aitak kotxia zeukan.
-Bai, aitak kotxia zeukan. Ni harkin goatzen naiz. Hiru bider eaman zuen detenittuta Lasartea. Aitta, bai, pistolakin etorrita.
Joxe: -Lasartea?
-Bai, Lasarten hor nunbaitt zaken zea, bilketa iteko beak edo. Batian beñipin etorri zitzaizkion eta, Usurbilko baten familikoen anaiya zan gaiñea. Este, falangista jantzita etorri zitzaiyon pistolekin kotxian billa. Kotxian giltzan billa.
-Detenitu zuten kotxia nahi ziotelako kendu edo?
-Bai, bai.
Joxe: -Kendu're in ziyen, ezta?
-Kendu're in ziyen, bai, bai. Ta geo bea desterratuta zeola Valladoliden billatu zun kotxia eta ekarri in zun eta konpondu in zun eta jarri in zun; hoik danak in zittun, bai.
-Suertia euki bihar hori...
-Suertia... Makiña bat gauza pasako zittun bitartian, makiña bat gauza, bai.

10. Aita bigarren aldiz atxilotu zutenekoa

- **Erref**: USU-027/020
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:22:23. **Bukatu**: 00:23:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:
Aita atxilotu egin zuten gerra garaian, apaizek nora egin zuten ihes jakin nahi baitzuten. Aitak jende askori eman zion pasaportea. Gero aita etxera ekartzeko komeriak izan zituzten.

11. Etxea galdu nahi ez bazuten, odoleko norbaitek egon behar bertan

- **Erref**: USU-027/021
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:23:54. **Bukatu**: 00:27:13

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:
Gerra garaian, Zubietara joan ziren bizitzera amaren baserrira. Izan ere, osabak Donibane Lohizunera egin zuen ihes, eta 3 urte pasa zituen han; bere etxea konfiskatzerik nahi ez bazuen, odoleko norbaitek joan behar zuen hara bizitzera. Hainbat aldiz saiatu ziren etxea kentzen; baina, ama han zegoenez, etxea salbatu zuten.

12. Etxera itzuli baino lehentxeago, etxea erre

- **Erref**: USU-027/022
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:27:13. **Bukatu**: 00:30:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:
Beren etxea hutsik gelditu zen gerra garaian. Gerra bukatu zenean, anaiak Usurbila nahi zuen itzuli eta aitak itzuliko zirela agindu zion. Itzultzekoak zirenean, etxea erre zen eta ezer gabe gelditu ziren. Aitaren kopa eta Zubietan zeukaten arropa bakarrik salbatu zen.

13. Usurbilen eta Andoainen ikasten ibilia

- **Erref**: USU-027/024
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:31:47. **Bukatu**: 00:32:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Zubietan egon ziren bitartean, Usurbilen hasi ziren ikasten bi ahizpak; gerora, Andoaingo jesuitinetan ikasi zuten.

14. Aita Usurbildik 500 km-ra desterratu zuten

- **Erref**: USU-027/025
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:32:38. **Bukatu**: 00:34:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
1939an, aita osabarekin batera hasi zen etxea berriro eraikitzeko planoak eta egin beharrekoak egiten. Hartan zebilela, desterratu egin zuten: Usurbildik 500 km-ra bizi behar zuen. Madrila joan zen bizitzera eta familia amarekin gelditu zen Zubietan; han ikasi zuten baserriko lanak egiten.

Transkripzioa
-Hortako hasi zan segittun aita, teintainueve, hasi zan segittun. Osaba Austin han zeon, Frantzin zeon hua're, ... hua're junda zan, eta harrek ba erdi arkitekto, erdi ieltsero zan, obrak eta gustatzen zitzaiona, eta harrekin planuak eta danak in zittun. Etxi hau berrittu... Oriokua, Oriyon bizitzen baizan. Eta poiektua ta dana in eta etxi hau, jende asko omen zeon ordun lagundu nahi ziyona gure aaittai, ikusiz herriyan erdiyan etxia nola geldittu zan eskonbroak ateatzeko. Ta eskonbruak ateatzen ai ziala desterratu in zuen aitta. Bai, bai. Usurbildikan bostehun kilometrora ... bihar izandu zun. Ez zeon bertago bizitzeik ez zakan.
-Desterratu zeiñek desterratzen zun?
-Zeiñek desterratuko zun. Abertzalia zalako. Aintzen zein zeuden ordun hemen?
-Hemen alkatiak edo...
-Hemen, ez dizut esango zein hemen. Dozenerdi bat Usurbillen ikusi nahi ez zuenak.
-Desterratu ein zuten?
-Desterratu? Madriden egon zan aitta.
-Ze jun zan, bera bakarrik harea?
- ... ba!
-Familiyakin edo...
-Bai zea! Gu danak amakin Zubietan geldittu giñen. Kermanek nolabaitt bukatu zun karrera. Nolabaitt ez, zazpi urte Lekarozen in zittun. Ta geo aukeratu zun kimiko izatia ta geo Zaragozan egondu zan eta geo...
-Zenbat denboran egon zan Madriden zuen aita?
-Madriden? Urte terdi edo bi. El año cuarenta-cuarenta y uno hola izango zan. Ama gukin han. Danakin han. Eta morroiyak bizi zian. Ya neskamiak puxkana-pixkana juten eta guk han ikasi genun bizitzen eta lana iten. Eta lan iten han ikasi genun. Jexus Mari, Mikel, Agate ta ni gutxixeao, baip gu labak (laurak) bakoitza bee maillan

15. Urte latzak eta aita desterratuta

- **Erref**: USU-027/026
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:34:44. **Bukatu**: 00:37:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Aita desterratu egin zuten eta 1940-41ean Madrilen bizi behar izan zuen. Urte latzak izan ziren orduan, gosete handia egon zen. Beraiek baserrian ez zuten goserik pasa. Gerra ostean, tentsioa zegoen.

16. Aita desterratuta: Madrildik Mugiro jatetxera bizitzera

- **Erref**: USU-027/027
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:37:09. **Bukatu**: 00:40:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Aitaren lagunek Madrildik Elizondora etortzen lagundu zioten. Han, Mugiro jatetxean egon zen 3-4 urte eta etxekotzat hartu zuten bertan. Gipuzkoan ezin zuen sartu orduan; eta, familia ikusteko, Lekunberrin elkartzen ziren. Mugirora joaten zirenean, ogi zuria jaten zuten.

17. Aitak gerran kendu zioten autoa berreskuratu zuenekoa

- **Erref**: USU-027/028
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:40:19. **Bukatu**: 00:43:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Aitak, desterratuta zegoenean, ezin zuen pasa Lekunberritik aurrera. Madrilen beti hartzen zuen aldizkari ofiziala eta han ikusi zuen kendu zioten autoa Valladoliden zegoela. Hala, berreskuratu egin zuen.

18. Txiki Erdiko tren-estazioa

- **Erref**: USU-027/029
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:43:10. **Bukatu**: 00:44:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Aitarekin Lekunberrin elkartzeko, trena hartzen zuten. Trenaren ibilbidea aipatzen du. Txiki Erdin tren-estazioa zegoen.

Transkripzioa
-Gero aipatu dezu Tren Txiki?
-Ez, gu Lekunberrira juteko trena zan, fuff!, ikatzakin izaten zan trena.
-Ze ibilbide?
-Hoi Donostitikan Naparruan ba Lekunberri, Leitza ta hoik danak pasata ta ez dakit ba nundik. Lekunberrin behiñipin bai. Ta hor juten giñan. Ta sarrera Lasarteko estaziyuan edo, Txikierdiko estaziyuan edo. Ez dakit nun izango zun, seguru asko. Nora juten giñan horrea juteko? Donostiraiño juten giñan? Hoi ez dizut...
-Txikierdin estaziuya zan?
-Estaziyua zan. Gaur do lokal haundi bat baiño hor trenik ez da gelditzen, baiño makiña bat bider Zubietatikan horrea jun gea Donostia juteko, Txikierdiko estaziyoa. Txikierdin estaziyoa trena gelditzen zana zan, e. Hortxe do oain etxe haundiya. Acerostikan honaxean don etxia. Hoi Txikierdiko estaziyua esaten geniyon.
Joxe: -Tren hoi oain esaten due Lasartetika Donostiya juten dala. Bazan leheno're. Hoi tren beltz hoi etortzen zan eta hor jiratzen zan.
-Fiii! iñez kia dariola Naparroa aldea, bai.

19. Gerra osteko kontrabandoa

- **Erref**: USU-027/031
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:45:29. **Bukatu**: 00:46:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Lekunberrira joateko, trena hartzen zuten. Tren hartan kontrabandoa eramaten zen. Gerra ostean dirurik ez zen eta janaria lortzeko nola-hala moldatzen ziren.

Transkripzioa
-Noiz kendu zuten trenbide hura?
-Hori ez dakit. Nik goatzen naiz aitta Lekunberrin zeola, Mugiron zeola juten giñala. Ta ez dakit. Hori ez nizuke esango. Urtiak dia ta urtiak jun iten dia.
Joxe: -Ni goatzen naiz trenbide hoi ta nola eurra ekartzen zun.
-Zeoze izango zan, bai, zeoze ibiliko zuen Naparrotikan honea ta hemendik Naparroa.
Joxe: -Kontrabandua uste det.
-Kontrabandua, klaro. Horregatik esan dizut Mugiron ez zala iriñan paltik ogiya iteko. Ta aitak esaten ziun guri: zuek ez dezue gehiyo ezautuko ogi zuririk.
Joxe: -Kontrabandua ibiltzen zuela uste det...
-Bai, bai. Kontrabandua ibiliko zun ordun, bueno! bueno!
Joxe: -Oaindik badaude makinistak ibili zianak...
-Bai, e? badie oaindikan?
-Hitz eiten duenak, e, hitz eiten duenak. "Eta ze ekartzen zenduen zuek'" eta, ba guk ogiya, gariya...
-Babarruna're igual eta. Danetikan, jateko, janariya. Ordun... Eske gerra ondorenian goatzen naiz ni, ikeragarrizko gosetia ibili zan, diruik ez zan, gaiñea. Eske ez zan diruik, diruik ez zan ordun. Dana kontrabanduan, dana kartillakin janariya ibilli bihar bagendun.
Joxe: -Ahal zunak ahal zuna ta.
-Dana horrela. gaur bezela? Jesus!

20. Garia ehotzeko osabak ekarritako makina

- **Erref**: USU-027/033
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 00:48:16. **Bukatu**: 00:52:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Osaba Frantziatik itzuli zenean, baserrian bizi ziren; han garia ereiten hasi ziren. Osabak makina zoragarria ekarri zuen garia ehotzeko. Anaiak Andoainen aritu ziren ikasten eta gero Laborde enpresan hasi ziren lanean. Bitarte horretan, ahizpak ikasi zuen garia ehotzeko makina hura erabiltzen. Guardia

zibilak zelatan egoten ziren, makina hura jartzea kontrabandoa baitzen. Behin guardia zibilak etorri ziren eta makina immobilizatu egin zuten.

21. Irinaren kontrabandoa Usurbilen

- **Erref**: USU-027/034
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:52:12. **Bukatu**: 00:53:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Miren JoneK berak ogia egunero egiten zuen etxean. Andatzatik egurra jaisten zuten eta kontrabandoa ere menditik barrena egiten zuten. Handik lortzen zuten irina.

Transkripzioa
-Ordun bitartian iriña ez dakit nundik ekarriko zun gure osaba horrek, etxian egiten gendun ogiya, nik ikasi nun ogiya iten, eunero iten nun nik ogiya etxian.
-Egunero?
-Bai, egunero, egunero, egunero. Kaleko Maria ez dakit zuk goatzen zean, Joxe Kale-ta zerra zuenak, ta haren arrebak, noski, Joxe Kalek ordun eukitzen zun egurra.
-Joxe: Andatzatik.
-Bai, Andatzatikan egurra. Bai, Etxetxo inguru hortan. Eta ordun kontrabandua hemendik barrena ordun, noski. Kalian ez zeon ibiltzeik, dana fiskatuta zeon, aotomoillakin ez zeon pasatzeik eta ezerre ta harrapatu iten ziñuen eta, mendiz. Eta ordun harek iriña nahikua ekartzen zun, Parrilla [...] hor zebillela. Eta ekartzen zun kontrabandua, eta Mariak ogiya iten zun etxian. Kaleko Mariak iten zun ogiya etxian. Ta dozenerdi bat lagun izango zian, baiño ogiya iten zun etxia ordun zan, bueno!

22. Apaizaren telefonoa kommutatu zutenekoa

- **Erref**: USU-027/036
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:53:12. **Bukatu**: 00:54:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Zubietan baserrian ez zeukaten telefonorik; apaizak lokutorio publikoa zeukan. Kommutatu egin zuen telefono haren linea.

Transkripzioa
-Geo gaiñea Aizpurun telefonoik ez zan. Zubitan zun apaizak lokutoiyua, publikua, eta gero kalean Joxek zun bere telefonua beak industria bat zekalako, zerra ta hoik zazkalako. Eta 7171 zan telefonuoi. 7171. Ta ordun Aizpurun ez zan, iñok ez zun telefonoik. Apaizan etxea iñok ez zun nahi jo telefonoa. Puff!, iñok ez zun jun nahi. Eta kalean dana. Kalean zan

Aizpurutikan plaza tartian. Ta juten giñan hara, ta ordun osabak in zun osabak in zun konmutatu kaleakin guria. Ordun biyak telefono bat: 7171 kalean eta 7171 Aizpurun. Ta aurrena beti kaleko Maria, emakume jatorra zan, harrek hartzen zun. Ta Aizpuruako baldin bazan, bigarrenen errepika. Ordun guk hartzen gendun bigarrenguan, ordun Aizpuruako zan seiñalia. Eta guk zeozertara hoi dana baiño leheno kalea jun behar in behar... Hoik lortu zuen. Ordun aurrenengo telefonuak hola zien, gaur patrikan danak.
-Joxe: -Gaur ze?
-Gaur patrikan telefonua. Ze diferentzi. Esaiezu. Jesus!

23. Usurbila bizitzera gogoz kontra itzuli

- **Erref**: USU-027/039
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:56:06. **Bukatu**: 00:59:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:
Zubietatik nahiago zuten Lasartera joan bizitzera, Usurbila itzuli baino. Bi bizikleta zeuzkaten etxean. Igandero Usurbilgo mezara joatera behartu zituzten gurasoek, nahiz eta beraiek Usurbila joan nahi ez. Meza zeneko egunerokoa azaltzen du. Azkenean gogoz kontra itzuli ziren Usurbila bizitzera.

24. Etxean heziketari garrantzia ematen zioten

- **Erref**: USU-027/042
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 01:02:58. **Bukatu**: 01:05:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Zubietan bizi ziren bitartean, Andoaingo jesuitinetan ikasi zuten. Osaba apaizaren etxean egoten ziren han ikasten zuten bitartean. Moja haiek gauza asko nahi zizkieten erakutsi. Ahizpa gazteena Zumaian egon zen barneko ikasle gisa. Orduan baserrian jendea behar zutenez, itzuli egin behar izan zuten etxera. Etxean garrantzia ematen zioten heziketari.

25. Miren Jone sukaldeko lanetarako aukeratu zutenekoa

- **Erref**: USU-027/043
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 01:05:45. **Bukatu**: 01:08:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Ama gaixotu egin zen, eta etxeko lanak alaben esku geratu ziren amak deskantsua har zezan. Miren Joneri sukaldeko lanak tokatu zitzaizkion. Orduan, Donostian sukaldaritzako eskolak hartzera joan zen. Miren Jone ona zen sendakuntzak egiteko.

26. Sukaldaritzarako zaletasuna eta jakin-mina

- **Erref**: USU-027/044
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 01:08:06. **Bukatu**: 01:09:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Sukaldaritzako eskolak non izaten ziren Donostian azaltzen du.

Transkripzioa
-Eta sukaldaritzako klasiak Donostin nun jaso zenitun?
-Gaur nola do Bulebarrian kafeteri bat Kale Nagusin sartzeko, Santa Maria juteko. Kafetei hoi zer da? Barandiaran. Horko alabak bizitza batian ematen zittun klasiak eta zuzenian hara bialdu niñuen. Baten batek ezautu zun. Ta ni ibilli nintzan, bi ikastaro ein nittun. Hogei urte nittula, hemeretzi-hogei urte nittula goatzen naiz. Biharra zeolako Aizpurun baten bat, baten batek bihar zun. Eta geo ogiya iten nun, gazta iten nun, hau iten nun, bestia iten nun eta milla gauza.
-Baiña asko ikasi zenuen ikastaro hartan.
-Ikastaro hartan? Zenbat dia, ordubeteko klasiak edo hiru ordu laurdeneko klasiak. Edozein ikastarotan ikasten da. Geo beste bi tokitan'e ibilli nintzan, beste klasetan'e bai. Asko gustatu izandu zait klasia, baiño oain dana utziya dakat, e. Asko ein det, reposteria're asko in det, asko gustatzen zait sukaldia baiño oain dana... Nere garaiya jun da eta utziya dakat.
Joxe: -Honbre.
-Liburuak'e kantidadia dazkat sukalde ikastarokuak baiño, sukaldarikuak baiño ez, hola geldittu da. Asi ke bakoitzak irtenbide bat dakala uste du baiño beste bat sortzen zaio ta heldu biharra dakazu.

27. "Francoren erregimenean, tripa handirik ez"

- **Erref**: USU-027/051
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 01:15:56. **Bukatu**: 01:16:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
"Francoren erregimenean, tripa handirik ez".

Transkripzioa
-Rejimenik ba al zan orduan?

-Rejimena?
Joxe: -Obligatuba. Bueno, rejimena esaten zuen, esaten zuen, Franco aintzen eon zanian Usurbillen ez zeon tripa haundik.
-Bai, e? Errejimena, horreatikan.
Joxe: -Gosia.
-Nahikua ez zeolako, ordun justubakin bizi giñalako. Momentu desberdiñak zialako. Milla gazagatikan. Dudik ez gaiñea.
Joxe: -Danak rejimenean harrek jarri zittula.
-Bai, bai, estraperluan zan dana ta. Ta razionamentuan, razionatuta zeon dana ta. Orduan baserria zunak defendittu ingo zan eta baserria ez zuna auskalo nola.

28. Miserikordiako etxea eta haren funtzionamendua

- **Erref**: USU-027/053
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 01:18:21. **Bukatu**: 01:20:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Lehen Miserikordia herrikoen artean mantentzen zuten. Miserikordiako eraikuntzaren historia azaltzen du.

29. Lasarte lehen nolakoa zen

- **Erref**: USU-027/055
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 01:21:26. **Bukatu**: 01:25:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Lehen Lasarte nolakoa zen azaltzen du: merkataritza, garraiobideak, hipodromoa... Zumaburu lehen irla zen eta hara iristeko zer bide egiten zuten azaltzen du.

30. Lasarte auzo izatetik herri bihurtzera

- **Erref**: USU-027/057
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 01:25:28. **Bukatu**: 01:27:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Lasarte eta Zubietaren artean ika-mika egon izan da. Lasarte auzo bat zen eta gero herri bihurtu zen. Lasartetik gertu dauden lur asko Usurbilenak dira.

31. Lasarteko golf-zelaia eta hipodromoaren inguruko negozioak

- **Erref**: USU-027/058
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 01:27:32. **Bukatu**: 01:28:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:
Atsobakar baserria zegoen lekuan golf-zelaia zegoen eta jende ospetsua etortzen zen hara. Lasarte hipodromoari esker atera izan da aurrera.

32. "Ya vienen los Pellos de Zubieta"

- **Erref**: USU-027/060
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 01:30:38. **Bukatu**: 01:32:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Neskek goiz itzuli behar izaten zuten etxera, baina mutilek ez. Mutilei Lasartekoek "los Pellos de Zubieta" deitzen zieten. Lasarten dena gaztelaniaz hitz egiten zen, euskaraz egitea makurkeria zelako haientzat.

33. Nesken artean gaztelania hitz egiteko ohitura

- **Erref**: USU-027/061
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 01:32:00. **Bukatu**: 01:34:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Garai hartan euskaraz hitz egiteagatik ez zegoen zigorrik. Behin Zubietako apaizak beren kontra esandakoa esaten du. Nesken artean gaztelania hitz egiteko ohitura zeukaten. Gerora, konturatu ziren euskara hitz egitearen garrantziaz. Kolegioan izenak erdaldundu egin zizkieten.

34. Izen euskalduna jartzeko trikimailuak

- **Erref**: USU-027/062

- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 01:34:23. **Bukatu**: 01:37:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Nesken artean hika egiten zuten; gurasoei berorika. Eskolan ezin zuten euskaraz egin, izena ere erdaldundu egin zieten. Anai-arrebek euskarazko izenak zituzten, baina erdaratzeko modukoak, bestela ez zieten eta uzten izen horiek jartzen.

35. Etxean ura eta argindarra lortzeko bideak

- **Erref**: USU-028/010
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:13:41. **Bukatu**: 00:15:40

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Etxean argindarra bazuten, baina ur-korrontea ez; horregatik, ur-depositua zeukaten etxean, euriaren urarekin betetzen zena. Depositu hark nola funtzionatzen zuen azaltzen du. Argindarra Arozenatik lortzen zuten.

36. Zinera joateko zaletasuna

- **Erref**: USU-028/011
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:15:40. **Bukatu**: 00:17:23

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Gaztetan Lasartera joaten zen lagunekin. Gogoan du behin aitak hiru anai-arreba zinera eraman zituenekoa. Aitak zaletasun handia zuen pelikuletarako. Donostian zineak non zeuden aipatzen du. Zinera joateko arropa dotorea eramaten zuten.

37. Lasartera joateko joera

- **Erref**: USU-028/013
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:18:28. **Bukatu**: 00:19:37

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Inguruko festetako erromerietara joaten ziren gaztetan; baina zinera nahiago izaten zuten joan. Igandetako plana nolakoa izaten zen azaltzen du. Zubietatik Lasartera joateko joera zegoen lehen ere.

38. Erosketak egitera Alamandegira

- **Erref**: USU-028/015
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:20:59. **Bukatu**: 00:21:57

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Zubietan Alamandegira etortzen zen okina; Alamandegin hainbat janari mota eros zitekeen. Batzuetan katua egoten zen janariaren gainean.

39. Etxeko hiru txakurrak

- **Erref**: USU-028/016
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:21:57. **Bukatu**: 00:25:11

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Zubietan hiru txakur zituzten etxean. Txakur haiei buruz hitz egiten du. Behin txakurrak aitaren kopa bota zuen, eta handik konturatu ziren oso material onekoa zela kopa.

40. Ohea berotzeko plantxa pasa

- **Erref**: USU-028/018
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:26:13. **Bukatu**: 00:26:55

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Ohea berotzeko, amak plantxa pasatzen zuen maindireetan ohera sartu aurretik.

41. Lehengo egunkariak eta aldizkariak

- **Erref**: USU-028/022
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:30:27. **Bukatu**: 00:31:28

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Lehengo egunkariak aipatzen dituzte. Aldizkari ugari izaten zituzten etxean.

42. Urteroko gonbidatuak

- **Erref**: USU-028/023
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:31:28. **Bukatu**: 00:33:47

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Lehen urtero etxez etxe ibiltzen ziren Jesus Haurtxoa edo Ama Birjina eramaten. Miren Joneren familiaren etxean urtero gelditzen zen haietako bat.

43. Ilea mozteko poza

- **Erref**: USU-028/025
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:34:03. **Bukatu**: 00:35:25

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Umetan trentzak izaten zituzten, baina beraiek ile motza nahi zuten. Lasarteko ile-apaindegi batera joan ziren eta poz-pozik atera ziren. "A lo garçon" orrazkera nolakoa zen aipatzen dute.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-16

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com